



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2006ko abenduaren 26a, asteartea.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena

HASIERA-ORDUA: 19:05 **AMAIERA-ORDUA:** 19:32

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, M. Jose San Sebastian Aranburu, Martxiel Genoba Solabarrieta, Ainhoa Leunda San Sebastian, Asier Yeregi Campos, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Eugenio Cotado Iturain ez da bilkuran izan, ez eta du hutsegitea argitu.



Aztergai zerrenda

1. Irakurtzea eta onartzea, egoki bada, 2006ko azaroaren 28ko ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen aurrekontu propioaren kredituen aldaketarako 5/2006 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarrien modalitatean.
3. Onartzea, egoki bada, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honen Aurrekontu Orokorra.
4. Onartzea, egoki bada, 2007ko urteari dagokion Orioko Udalaren Plantilla Organikoa eta Lanpostu-zerrenda.
5. Esleitzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obren kontratazioa.
6. Onartzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obrak kontratatzeke Plegu Baldintza Administratibo Partikularrak, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez.
7. Baimentzea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2 zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiapen eskubideen lagapena hirugarren batzuei.
8. Baimentzea, egoki bada, Orioko Udal Kiroldegiaren –Karela– Kafetegitabernaren ustiapen eskubideen lagapena aldi baterako hirugarren batzuei.
9. Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1. IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO AZAROAREN 28KO OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA, 2006ko azaroaren 28ko Ohiko Bilkuraren aktaren zirriborroa.

2. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2006KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTU PROPIOAREN KREDITUEN ALDAKETARAKO 5/2006 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA, KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostenaren eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko abenduaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

1. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA**, 2006ko ekitaldi ekonomikoari dagokion udal honen kredituen aldatetarako 5/2006 zenbakidun espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatean, 200.000 €-ko kopuruan.

2. Indarrean dagoen araudiaren xedatutakoa betez, aipatu espedientea jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:



- a) *Erakutsita dagoen lekua:* Idazkaritza-kontuhartzailletza.
- b) *Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:* Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
- c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak:* Toki Ogasunen Arautzailea den, abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten udalbatza-kideek.
- d) *Inpugnatzeko arrazoiak:* Aipatu berri den legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e) *Aurkezteko bulegoa:* Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udal Plenoa.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

3. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION UDAL HONEN AURREKONTU OROKORRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, 2006ko abenduaren 12an egindako Hazienda eta Pertsonaleko Batzorde Informatzaileak emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, Etxeberria (EAJ-PNV) Olariaga (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Leunda (EAJ-PNV), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ-PNV), Yeregi (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV) eta Azkue (EA) zinegotzien aldeko botoekin, guztira **BAIEZKO BEDERATZI BOTO**, gehiengo absolutua, Udalbatza hamaika zinegotzik osatzen baitute, eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziaren kontrako botoarekin, guztira **KONTRAKO BOTO BAT, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU:**



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udalaren Aurrekontu Propioari.

2.- ONARTZEA 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udalaren aurrekontu orokorra exekutatzeko oinarriak.

3.- 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udalaren aurrekontu orokorra **JENDAURREAN JARTZEA**, Aurrekontu Propioak eta “ORIO GARATZEN, S.L.” udal Elkarte Publikoaren Aurrekontuak osatua, Udal Erregimenari buruzko oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 150.1 artikulua ezarritakoa betez. Espedientea ondoko arauen arabera jarriko da jendaurrean:

a) Erakutsita dagoen lekua: Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzan.

b) Aztertze eta, hala badagokio, erreklamazioak jartzeko epea: hamabost lanegunekoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitara eman eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarki hau udaletxeko iragarki-taulan eta ohiko lekuetan ere jarriko da).

c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.1 artikuluan aipatutako interesatuek.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Tokiko Haziendak erregulatzen dituen abenduaren 28ko 39/88 Legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Erreklamazioak aurkezteko bulegoa: udaletxeko sarrera-erregistroan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Erreklamatzeko Organoa: Erreklamazioa Udalbatzarrari zuzenduko zaio.

Adierazitako informazio-epea igaro eta inolako erreklamazio edo oharpenik egin ez bada, Udalaren 2007ko aurrekontu orokorra hori behin betirako onartuko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.



Emandako botoaren azalpenaren txandan, Jesús Rodríguez (PSE-EE-PSOE) hartu du hitza ezezko botoa justifikatzeko, ondorengo arrazoien harira:

1.- Udalbatzarraren aurrean salatu nahi du 2007ko aurrekontuan Orioko Herri Ikastolari dagokion finantzazioan eman den kontuhartzailletza maniobra bat (422 funtzionala desagertzen da eta transferentzia arrunten kapituluan aurrekontuko partida bat agertzen da). Hau da, “dirua ematen diegu eta eros ditzatela goxokiak”. Bere iritziz, Orioko Herri Ikastola Erakundeak finantzazio bikoitza du, beste kontzeptu batzuenengatik jasotzen dituen beste diru-laguntzen kalterik gabe. Era berean, diru gehien jasotzen duen erakundea da eta, hala ere, ez dugu ahaztu behar enpresa pribatua dela.

2.- Hirugarren munduari ematen zaizkion laguntzei dagokionez, 2005 eta 2006ko ekitaldi ekonomikoetan Euskal Fondoarentzat gutxi gorabehera 15.000 euroko zenbatekoa duten aurrekontu-partidak ezarri dira, baina, hala ere, 2007ko ekitaldiko aurrekontuan 1.157 euroko zenbatekoa duen aurrekontu-partida ezarri da, eta bere iritziz, % 0,7tik oso urruti gabilta, kontuan hartuz azken urtean zerga kontzertatuen partaidetza % 9 igo dela.

3.- Udalbide Elkarteak ez da inongo euskal udal organismoa, zinegotzi asko falta baitira elkarte horretan, eta UEMA, badakigu zer den, eta beraz, diskriminaturik sentitzen naiz.

Neure buruari galdetzen diot ea aurrekontu solidarioago baten bila gabiltzan, eta erantzuna, jakina, ezezkoa da.

Aipamenengatik, Alkate jaunak hartu du hitza Rodríguez jaunari aurpegiatzeko ea nola den posible aurrekontu solidarioerik ez dagoela esatea, izan ere, 2007ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Udal honetako Aurrekontu Propioaren 6. kapituluan –Inbertsio Errealak– babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitzak tasatuen sustapenerako aurrekontuan partida sendoak ezarri dira Hondartzako eremuan, hurrenez hurren, 1.480.405.- € eta 2.036.626.- € zenbatekoan. Azkenik, galdetzen dio non egon den aldeaz aurretik ekarpenak ez egiteko Haziendako Batzorde Informatzailearen bilerak izan direnean.



4. ONARTZEA, EGOKI BADA, 2007KO URTEARI DAGOKION ORIOKO UDALAREN PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU-ZERRENDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Haziendako Batzorde Informatzaileak 2006ko abenduaren 12an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

ONARTZEA 2007ko urteari dagokion Orioko Udalaren plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.

5. ESLEITZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO – I. FASEA –” OBREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

HUTSIK DEKLARATZEA “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1. fasea –” obren kontratazioaren deialdia lizitatzailerik izan ez delako.

6. ONARTZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO – I. FASEA –” OBRAK KONTRATATZEKO PLEGU BALDINTZA ADMINISTRATIBO



PARTIKULARRAK, PROIEKTU TEKNIKOAREN ARABERA, PROZEDURA IREKIZ, PRESAZKO TRAMITAZIOZ ETA LEHIAKETA BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta udal zerbitzu teknikoak eta juridikoak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

MAHAI GAINEAN UZTEA “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1. fasea –” obrak kontratatzeko Plegu Baldintza Administratibo Partikularren onarpena, proiektu teknikoaren arabera, prozedura irekiz, presazko tramitazioz eta lehiaketa bidez, obren lizitazio aurrekontua behar bezala eguneratua ez dagoen **ARTE**.

7. BAIMENTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2 ZENBAKIDUN ERAIKINEAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUEN USTIAPEN ESKUBIDEEN LAGAPENA HIRUGARREN BATZUEI.

Jarraian Udal honetako Udalbatzak Orioko Antilla hondartzako 2 zenbakidun eraikinean udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiapen eskubideen lagapena emateko tramitazioaren berri du, Berlosa jaunak ordezkatzeko duen TXALUPA ORIO, S.L. esleipendunak, Urretabizkaia eta De la Parra jaunek ordezkatzeko duten MANDOEULIE, S.L. merkatal elkartearen alde.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonalaren Batzorde Informatzaileak 2006ko abenduaren 12an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

LEHENENGO.- BAIMENTZEA Orioko Antilla hondartzako 2 zenbakidun eraikinean udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiapen eskubideen



lagapena, Berloso jaunak ordezkatzeko duen **TXALUPA ORIO, S.L.** esleipendunak, Xabier Urretabizkaia Lizarribar eta Jose Manuel De la Parra Arruabarrena jaunek ordezkatzeko duten **MANDOEULIE, S.L.** merkatal elkartearen alde, Udal honetako Udalbatzarrak 1998ko otsailaren 20an ospatutako bilkuran berariaz onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-administratiboaren Pleguan ezarritakoaren arabera, eta beraz, aipatu zerbitzuen ustiapen eskubideen iraupen epea 2018ko maiatzaren 30ean amaituko da.

BIGARREN.- JAKINARAZTEA ebazpen hau interesdun pertsona guztiei, jakinaren gainean izan daitezkeen eta dagozkion ondorioetarako, bidezko diren errekurtso legalak aipatuz.

8. BAIMENTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KIROLDEGIAREN –KARELA– KAFETEGI-TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEEN LAGAPENA ALDI BATERAKO HIRUGARREN BATZUEI.

Jarraian Udal honetako Udalbatzak Orioko Udal kiroldegiaren –Karela– kafetegi-tabernaren ustiapen eskubideen lagapena aldi baterako emateko tramitazioaren berri du, Ouarda Elkattoumi Ep Ziani andre esleipendunak, Aitana Ezquerria Sánchez-en alde.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda eta Pertsonalaren Batzorde Informatzaileak 2006ko abenduaren 26an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [10 baiezko boto]:

LEHENENGO.- BAIMENTZEA Orioko Udal kiroldegiaren –Karela– kafetegi-tabernaren ustiapen eskubideen lagapena aldi baterako, Ouarda Elkattoumi Ep Ziani andre esleipendunak, Aitana Ezquerria Sánchez-en alde, bost urteko epean eta Udal honetako Udalbatzarrak 2003ko irailaren 30ean ospatutako bilkuran berariaz onartutako Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-administratiboaren Pleguan ezarritakoaren arabera.



BIGARREN.- JAKINARAZTEA ebazpen hau interesdun pertsona guztiei, jakinaren gainean izan daitezen eta dagozkion ondorioetarako, bidezko diren errekurtsio legalak aipatuz.

9. ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamabi minutu izanik, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN**.

ALKATEA

IDAZKARIA